



BESTAK LESAKA, ITUREN

2025

ttipi-ttapa | 881 zk. | 2025-07-03



LESAKAKO BESTAK 2025

Uztailak 4, ortziralea

23:00etan La Txama taldearen emanaldia plazan. Ondoren DJ Infernu.

Uztailak 5, larunbata

16:30ean Benito Taintaren omenezko II. pilota txapelketaren finalak udal pilotalekuan, Arkupe Pilotazaleen Elkartek antolatuta. **22:00etan** Muxutruk taldearen emanaldia plazan. Ondotik DJ Endara.

Uztailak 6, igandea Bezpera Eguna

10:30ean Lesakako Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren kalejira Lesakako Gaitariekin. **11:00etan** Lesakako Txistulari, Lesakako Soinulari eta Lesaka Trikitixa Taldearen kalejira. **12:00etan** Herriko Etxetik piztuko den altxaferoaren eztaandak eman die hasiera beste. **12:15ean** Elutxa Txarangak eta haur ttikien danborradak girotuko dituzte karrikak. **17:30ean** Tantirumairu Euskal Folklore Taldearen dantza erakustaldia udal pilotalekuan. **20:00etan** altxaferoa bota ondotik danborrada nagusia abiatuko da, Lesakako Erraldoi eta Buruhandien konpartsa, Lesakako Banda eta guzti, herri erdigu-

netik itzulia emanez. **23:00etan** Akerbeltz taldearen emanaldia plazan.

Uztailak 7, astelehena Fermin Donearen Eguna

08:30ean Ezpata dantzarien meza isila. Joan-etorria Txistulari taldearen laguntzaz egingen da. **10:30ean** Udaltzaz berte agintariekin, Ezpata dantzari eta Musika Bandarekin batera, herriko ikurak aitzinean dituztela, abiatuko dira Herriko Etxetik elizara, Mezara. Bertan, Lesakako Abesbatzak parte hartuko du. Meza ondotik, Fermin Zaindariaren irudierekin prozesioa egingen da. Ondotik, Udaltzaz, lehen aipatutakoekin, da Eskolttikira jaitsiko da, Zubigainekoa dantza ikustera. Ondotik, Bandera-arbola doinuari dagokion ikurrin-agurra zubi gaine. Dantza bera Plaza Zaharrean, ikurra Herriko Etxera igan aitzinean. **18:00etan** Bezperak; Elizara joan-etorria. Bezperetan, Lesakako Abesbatzak kantatuko du. Ondotik, plazan, herriko dantzariak Zantzomonona, Esku dantza, Aurrekua eta Jota eta Porrusalda dantzatuko dituzte. **19:00etan** Plaza Zaharrean, bertso saioa, Arrano Elkartek antolatua. Bertsolariak: Ekhiñe Za-



TTIPI-TTAPA



KAGU LIBURUDENDA

LESAKA
lesaka@legarra.org
948 638 232

SANFERMINETAN EGUNERO IREKIA
08:30-13:00

FOTOKOPIAK | LIBURUAK | OPARIAK
EGUNKARIAK | ALDIZKARIAK | PLASTIFIKAZIOAK
ENKUADERNAZIOAK | BILKETA PUNTUA

ERABILI HEMEN ZURE
GAZTE KULTURA BONUA
#BonoJovenCultural | bonoculturajoven.gob.es

ITURBENA

ONGI PASA BESTAK

kafetegia

Koskontako bidea 5, behe - LESAKA

DANI

INSTALACIONES

LESACA

Elektrizitatea
SEGURTASUN KAMERAK
INTERFONOAK
SUTE DETEKZIOAK

T. 666 545 069
daniinstalaciones@gmail.com

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ONGI PASA BESTAK!

948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Zalain Ind., 42 Bera.

ESKaintza BEREZIAKI!

Ikastaro teorikoa nahiz praktikoa euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegara pasealekua, 26 Plaza Berria, 7
BERA LESAKA
T. 948 630 298 T. 948 638 299
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!

OTSANGO

Astelehenetik asteazkenera: 08:00-21:00
Ortzegunetik larunbatera: 08:00-00:00
lgandeak itxita

Menuak
Bokatak
Errazioak
Plater konbinatuak

Otsango ind. LESAKA 948 396 480

Ongi pasa bestak!

JUBILATUEN OSTATUA
L.A.R.
SAN FERMIN

DJ ENDARA
uztailak 4, 5 eta 6

24 orduz irekia!

MENUA | BOKATAK

631 837 959 - 948 62 75 12
Behoko plaza, 9 - LESAKA



TTIPI-TTAPA

piainen agindupean: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Josu Sanjurjo eta Julen Zelaieta. **21:00etan** Larrain dantza Lesakako Gaitariekin Plaza Zaharrean. **22:00etan** Zezensuzkoa. Ondotik, Mogumbo Brass Band taldearen emanaldia.

Uztailak 8, asteartea Peñen Eguna

08:30ean Diana Lesakako Gaitariekin. **09:00etan** Peñen gosaria. **10:00etan** peñen danborrada Elutxa txarangarekin, **12:00etan** betizuak Plaza Zaharrean Elutxa txarangarekin. **18:00etan** peñen elkartzea Elutxa txarangarekin, peñen jaitsierarako. **20:00etan** Saku-tu Elektrotxaranga. **00:00etan**. Itzal taldea Plaza Zaharrean.

Uztailak 9, asteazkena Haurren Eguna

08:30ean Diana Lesakako Gaitariekin. **10:30ean** haur eta gurasoen danborrada. Ondotik, buruhandiak eta haurrentzako entzierroa. **12:00etan** betizuak Plaza Zaharrean Elutxa txarangarekin. **14:30ean** Señora Bazkaria Azkaineko emakumeekin ahizpata Kasinon. Xulufinak Lesakako Sare Feministak antolatua. **16:00-19:00**

haur ikuskizunak Eltzeta Plazan. Eguraldi txarra egiten badu. Goiko frontoian izanen da. **17:00etan** profesionalen arteko esku pilota partidak frontoian. **19:00etan** Elutxa txaranga karrikaz karrika. **21:00etan** Larrain dantza plazan Lesakako Gaitariekin. **22:00etan** zezensuzkoa. Gero, Zurrunbilo taldearen emanaldia.

Uztailak 10, ortzeguna Herriararren Eguna

08:30ean Diana Lesakako Gaitariekin. **10:30ean** haurrentzako Bizitza festa bat da! Ipuin musikatua Harriondoan. Ondotik, haurrentzako entzierroa Harriondotik Plazara. **11:00etan** Andra Mari Zahar Etxeko lorategian, Bankako Menditararak. Gero, Alondegiko arkupeetan. San Fermin Jubilatua eta Pentsionisten Elkarteak antolatua. **12:00etan** betizuak plazan Elutxa txarangarekin. **13:45ean** herri bazkarira kalejiran Elutxa txarangarekin. **14:30ean** herri bazkaria Eltzeta Plazan. Ondotik, musika emanaldia Beñat Mitxelenarekin. **18:30ean** Txakaindik jaitsiera Zortziko doinuarekin. **20:30ean** Oilar Beltzak musika taldea plazan. **00:00etan** Jai-Hilak Elutxa txarangarekin.

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO 948 581 300 - F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22 31780 BERA T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 - F. 948 451 304

Eltzeta, 20 31770 Lesaka T. 948 638 07

Urte | Años
50
1975-2025



Zuen konfiantza da gure motorra

bidasoa TRANSPORTES

transbidasoa.com



Besta zoriontsuak opa dizkizuegu Lesakar guztiei!

ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU ZENTRALAK

Alkaiaga ind. Ziobi kalea - LESAKA (Nafarroa)
Tel. 948 637 901 | administracion@transbidasoa.com

DELEGAZIOAK

ARABA BARTZELONA BIZKAIA
GUADALAJARA PONTEVEDRA VALENTZIA



3Hiru Home

Ongi pasa bestak!

943 930 025 | Prudencia Arbide, 2 • IRUN | www.3hiruhome.com

ONGI PASA BESTAK!

sasoi

www.sasoi.eus
Leku-eder, 16 • 31791 SUNBILLA
T.948 451 596 | info@sasoi.eus

ONGI PASA BESTAK!

D

«<<<<H I R U K I D E>>>>»

Eguzki panelak ▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀
Aire egokitua ◀

T./F. 948 625 395
Alkaiaga ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

Coffee - Pastelería - Bar

Bittiria

ONGI PASA BESTAK!

DJ Endara - Uztailak 4, 5, 6
24 orduz irekia!

endara edj's

BOKATAK eta HANBURGESAK

☎ 948 495 792 📞 631 837 959
Bittiria 22, LESAKA



«Lesaka bizirik nahi badugu zerbitzuak izatea beharrezkoa da»

GUREKIN ZERBITZUEN ELKARTEAK TXUPINAZOA PIZTUKO DU

Gaur egun 33 bazkide dituen Gurekin Zerbitzuen Elkarteak izanen da aurtengo sanferminetako lehen suzuria pizteko ardura hartuko duena. 2007an sortu zen elkarteak eta, beraz, hemezortzi urte egin dituen urte honetan botako dute txupinazoa. Besta Batzordeak zituen proposamenen artean bozketa egin eta gero aukeratu dituzte. «Ilusio handiarekin hartu dugu altxaferoa botako genuelaren berria. Urteetan egindako lanaren errekonozimendutzat hartzen dugu», diote elkarteak kideek. «Eguerdia baino lehenxeago goituko gara 25 bat bazkide eta ondotik luntx batera gonbi-

datuko gaitu udalak. Hortik aitzinera, espero dugu gure herriko bestez disfrutatzea».

Bestak bakoitzak bere modura

Hainbertze zerbitzu izanik, hain arlo ezberdinetakoak, bestak bizitzeko modua ere ezberdina izaten dute, «zerbitzu eta denda batzuk, aitzinetik aritzen gara batez ere lanean eta ostalariak, aldiz, egun horietan izaten dute lan gogorra». Arlo ugarietakoak izan arren, badira urte osoan elkarrekin egiten dituzten ekintzak ere: «Urtero saiatzen gara bezeroaren fidelotasuna saritzeko ekintzen bat

Gora San Fermin!

amura
ILEAPAINDEGIA

BITTIRIAKO PLAZA 1. LESAKA . 948637797

erran.



AITOR AROTZENA

egiten. Zozketak, tonbola...aurten *Scape Room* bat antolatu genuen gure komertzioetan barna. Udaberrian Gurekin eguna, gure postuak paratuz, musika karrikak alaitzen eta plazan antzerki ikuskizun batekin. Urte bukaeran, eguberrietako azoka antolatuko dugu aurten ere».

Beti erran ohi da kontsumo ohiturak aldatzen ari direla, merkataritza gune handietan edo Internet bidez erosteko joera gero eta handiagoa dela... Elkarteko kideek diotenez, «erosteko ohiturak aldatu direla konstziente gara eta saiatzen gara ahal dugun neurrian gaur egungo modu berrietara egokitzen. Uste dugu kontzientzia eta ardura puntu bat baduela». Ardura horren erakusgarri, Zerbitzuen Elkartearekin elkarlanean hirugarren sektorearen inguruko lanketa egiten ari da Lesakako Herriko Etxea, Hirugarren Sektoreko Mahaia ere elkartzen da: «Bai, bilera batzuk egin ditugu eta proiektu bat martxan paratu ere, udalarekin batera. Errelebo generazionala, ekintzailatza eta bezeroen-

gana hurbiltzeko tresnak sortzea izan ditugu helburu»

Zakozahar berdearen bila

Udaberri partean egin den Zakozahar Berdearen bila kanpainak ere ikusmina piztu du. «Lesakako Udalak 'Fundación Emplea' kontratatu du. Hirugarren sektoreko mahaian saio batzuk egin genituen, gure kezkak, beharrak, kontsumo motak eta Lesakak dituen beharrak aztertze arlo honetan. Beka moduko batzuk sortu dituzte eta *Zakozahar Berdearen bila* kanpaina, lan hau burutuko zuten hautagaiak lortzeko egin zen. Hari hori jarraituz, hiru gaztek (Izaro Iparragirre, Julia Artieda eta Ekaitz Bertiz) hagitz lan ikusgarria egin dute, proposamen errealekin. Bideoa ikusgai dago», aipatu digute. Herrian hamasei lokal huts ere identifikatu dituzte eta horietako hirutan negozio proposamenak egin dituzte. «Aitzinera eramateko modukoak direla uste dugu, nahiko modu errealean egin dute proposamena. Ea animatzen den norbait pausua ematera!», adierazi dute elkarteko kideek.

Lesakako hirugarren sektorearen etorkizunari buruz galdetuta, berriz, «denon esku dago etorkizuna» erantzun digute, «Lesaka bizirik mantendu nahi badugu, zerbitzuak izatea beharrezkoa da. Zerbitzuak mantentzeko, bertan erosi eta kontsumitu behar da eta hori denon ardura da. Espero dugu gauden zerbitzuak mantentzea eta pertsona ekintzaileak gure herrian zerbitzu bat ematera ausartzea». Azken finean, herriko bezeroak izatea funtsezkoa da Gurekin Zerbitzuen Elkartearentzat, elkartearen muralak dioten bezala: *Komertzio ttikia, zukegiten duzu haundi...* «Noski, bata bertearen beharra du», erran digute bukatzeko.

ZANTZONEA JATETXEA

PINTXOAK | RAZIOAK | BOKATAK
PLATER KONBINATUAK....

ONGI
PASA
BESTAK!



☎ 848 99 20 17 📍 BITTIRIA, 3 - LESAKA

Gora San Fermin!



kattagorria
EUSKAL JANTZIAK

BEHEKO PLAZA 10. LESAKA • 948 627 514

WWW.KATTAGORRIA.COM




ALZUGARAI
ESKABAZIOAK

Hondeaketa eta
garraio lanak

T. 646 986 448

Nabaz auzoa
Guillen-borda
31770 Lesaka

ONGI PASA BESTAK!



AROTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK

Barandak, balkoiak, atea,
hesiak, forja artistikoa, ...

M. 646 774 117

ONGI PASA BESTAK!

Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com



Ze goxoa

GORA SAN FERMIN!

ONGI PASA BESTAK!

BERA
Kanttonberri, 3
t. 948 630 381

LESAKA
Plaza Zaharra, 17
t. 948 637 294

ELIZONDO
Santiago, 47
t. 948 580 859

DONEZTEBE
Zazpigurutze, 4
t. 948 451 332

LEITZA
Landabekoa, 2
t. 948 610 612

E D A R I A K

ONGI PASA BESTAK!

MANUEL TABERNA S.L.

📍 Bidasoa, 76 - 31780 **BERA**
☎ 948 63 10 27 📠 670 598 560
✉ info@tabernaedariak.eus
🌐 www.tabernaedariak.eus

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

PITTIN!
haurrentzako arropa denda

ONGI PASA SANFERMINAK!

T. 948 627 583
Arretxea 20, Behea
LESAKA

AGORLEKU
ARDI GAZTA QUESO DE OVEJA

gure baserriko esnearekin **LESAKA**n egindako gazta

bertakoa, familiarra, tradizionala, naturala...

AGORLEKU BASERRIA
Izotzaldea 7
auroa Lesaka

ONGI PASA BESTAK!

📞 Tel.: 670 74 95 49 | info@agorleku.eus | www.agorleku.eus

ARRANO
ostatua

Albistur 13, Lesaka. 948 627 597

KROKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
ENTSALADAK, PLATER KONBINATUAK
eta giro bikaina

PRESO TA IHESLARIAK ETXERA!

BAR · RESTAURANTE

KASINO

OSTATU · JATETXEA

Jai alai eta pozgarriak izan itzazue

LESAKA

Plaza Zaharra, 14
TEL: 948 637 152
948 637 287

TRANSTXAKAIN
TRANSTXAKAIN. S.L.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

EKO TXAKAIN S.L.

GAIKAKO HONDAKIN BILKETA

Gora San Fermin!

T. 669 840 198 / 948 638 052
Faxa: 948 627 578
Otsango Ind. 28 • **LESAKA**
info@transtxakain.com

JANARI
GURE SUKALDETIK ZURE ETXERA

ZUK PRESTATU.

ZUK DISFRUTATU

San Pedro, 24 · 20304 **IRUN**
☎ 623 116 265
📱 @janari_irun

Etxe(r)ko janaria
Zure partez kositzen dugul!
Menua, karta, tortillak,
bizkotxoak...

Lesakara enkarguak ekarriko ditugu

«Dantzarien janzkera erdigunean paratzen saiatu naiz aurten»

IMANOL MESA GARMENDIA AZAL LEHIAKETAREN IRABAZLEA



AITOR AROTZENA

Sanferminetako programaren azal lehiaketa irabazi du Imanol Mesa Garmendiak, 20 urteko lesakarrak. Arte graduako bigarren maila ikasten ari da Bilbon eta lehiaketara aurkeztu den bigarren aldia da, «joan den urtean kartela bakarrik aurkeztu nuen eta aurten azal lehiaketan bakarrik parte hartu dut. Egia erranda ez nuen irabazterik espero, aurkeztu gabe ez gelditzeagatik aurkeztu dut aurten, inolako esperantzarik gabe».

Margolan digitala

«Ezpata dantzarien arroparen kolo-reetan oinarritzen den margolan digital» gisara definitzen du berak aurkeztutako *Kruzik* lana. «Pertsona irudikatu gabe jantzien, eta hauen koloreen mugimendua *kruzeak* egi-

terakoan nola den irudikatzen saiatuz. Ezpata dantzaria da Lesakako sanferminetako folklorearen ikur esanguratsuena, egia da gehienetan ezpata dantzariak protagonista izaten ditugula kartel eta azal lehiaketan, horregatik, iaz arratsaldeko dantzarien kartela aurkeztu nuen, bigarren plano batean gelditzen diren dantzarietako protagonismoa emateko. Aurten, aldiz, janzkera erdigunean paratzen saiatu naiz». Tantiurumairu Euskal Folklore taldeko dantzari ere bada eta aipatu digunez, «ttikitatik ikasi dugu gure jantziek dantzan duten garrantzia. Hau dantzatzen ez duten baina josten eta arropak prestatzen ibiltzen diren emakumeen lanari esker lortu da. Hauei esker erraten ahal dugulako Lesakan hau aunitz zaintzen dugula, dantza taldearen eragina sanferminetatik olentzero eguneko lehiaketara hedatzen delako, eta nabaria da». Berari ere gustatuko litzaioke ezpata dantzari ateratzea San Fermin egunean, «edozein lesakarrentzat ttikitatik izan duen ilusioa dela erranen nuke eta dantzaria izateak hori areagotzen du».

Urteko aste politena

Sanferminetakoa urteko aste politena da Imanol Mesarentzat, «jaio nintzenetik xuri gorritz jantzi naute eta jantziko naiz urte luzez seguraski. 6a da gehien gustatzen zaidan egu- →

Domiko
calefacción sostenible

ESTUFAS Y CALDERAS
Pellet eta egurrean espezializatuak

ONGI PASA BESTAK!
www.domikorenovables.com | 639 914 455

GESTETIKA
IGARZABAL

Ongi pasa bestak!

Albistur 17, LESAKA · 948 637 280

urtek
water technologies · uren tratamenduak

Ongi pasa bestak!!

POTABILIZAZIOA, DESMINERALIZAZIOA, DESKALTZIFIKAZIOA, OSMOSIA, FILTRAZIOA, BERRERABILPENA, DEPURAZIOA, PRODUKTU KIMIKOAK, INSTALAZIOEN MANTENUA

T. 948 638 188 | urtek@urtek.org | www.urtek.org

-Estetika
-Hialuronikoa
-Protesiak
-Endodontziak
-Implanteak
-Hortz zuritzeak
...



Betiko lekuan eta betiko moduan jarraitzen dugu,

Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!

948637282/
943623997

Antoiu kalea, 7, Lesaka
Aldapeta kalea, 2, 2.B, Irun

Pinpirin
PELUQUERÍA • ILEAPAINDEGIA

Besta onak pasa itzazve!!

Plaza Zaharra, 26 • Lesaka
T. 948 63 80 37



GORA SAN FERMIN!

BEKO




*Zure konfiantzazko loradenda,
beti bezala aholkatzeko prest!*

Otsango auzoa • **LESAKA** • T. 948 637 826

na, herritarren painulua jartzeko gogoak goizean, danborren hotsa arratsaldean, besta, gosalduta eta ez-pata dantzariak elizara igotzen ikus-tea ondotik... Zerbait hobetzekotan, herritar batzuen parte hartzea izanen zen, txosnak antolatzen, bazkariak...». Irrintzi peñako kide da eta «6arekin batera, 8a egun politenetakoa da niretzat. Goizean peñen danborra-darekin hasten dut eguna, gero pla-zako balkoitan txaranga aditu eta bazkaltzera joaten gara. Arratsaldean peñen bajadarekin, eguraldiak lagun-tzen badu, pixka bat busti eta besta egitera». Uztaillaren 11n egun bateko atsedean hartuko du, baina 12an eta 13an berriz ere txuriz jantzi eta Iruñean izanen da, «Fifi ta Fefa gisa pintxatzen, 12an Monton tabernan eta 13an Herri Sanferminetako txosnagunean».

Fifi ta Fefako Fefa

Izan ere, Fifi ta Fefa DJ bikoteko Fefa ere bada Imanol Mesa (Unax Ordoki da Fifi). Izen berezi horren giblean, nolabaiteko omenaldi bat ere bada: «Bai, gu bion amatxiren goitzenak dira Fifi ta Fefa, Serafina Mazizior Fifi eta Josefa Tapia Fefa. Ez ditugu guk asmatu, herri guztiak deitzen ditu Fifina eta Fefa goitizenez, eta izenak antzekoak zirenez hau aukeratu genuen oraindik pintxatzen hasteko esperantzarik gabe ginenean». Fefak erran digunez, «denetik jartzen dugu giroaren eta orduaren arabera, batez ere gu besta egiten bagina jarriko



genukeena. Euskal herriko panorama musikaleko artistak jartzen saiatzen gara gehienbat baina ez dizkiogu ateak ixten bertze erritmoei, gauden lekuko adin tarteari ere erreparatzen diogu aukeraketa egiteko orduan». Euskal Herriko txoko aunitzetan ibilia dira dagoeneko, «Agurainen, Laz-kaon, Gaintzan, Bilbon, Lezon, Baz-tanen, Leitzan... eta aitzinetik dato-zenak, Usurbil, Zarautz, Iruñea, As-teasu, Gasteiz...». Horien artean bat aukeratu beharko balu «lehendabi-zikoa» izanen zen, «Baztango gazte-txeak egin zigun harreragatik, etxean bezala sentitu ginen. Lehen lerro guztia gure kamixetez bete zagoen, lagunek sorpresa gisa egin zizkigu-tenak, hagitz polita izan zen». Eta non gustatuko litzaiekeen musika jartzea? «Edozein dela lekua gustura egoten gara, baina aukeratu ahal banu Gaz-teon Eskutik edo 40 Minutu Rock edo horrelako topaketaren batean adibi-dez».

S M
Saioa Mitxelena
ETXEBIZITZEN AHOLKULARITZA

ETXEBIZITZEN BALORAZIO PROFESIONALA

LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA SALEROSKETA PROZESU OSOAN

HOME STAGING

PUBLIZITATEA WEB ORRIALDE NAGUSIETAN

ORDAINSARI MURRIZTUAK

📞 609 057 040
🌐 www.inmobiliariasaiomitxelena.com
✉ nereetxea@gmail.com



IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA BESTAK -



Arretxea, 12
LESAKA
948 638 287



Sanferminetan
otordu goxoak
prestatzeko
...



SUMA

Ongi pasa bestak !!

Plaza Berria, 10
T. 948 637 335



AGENTZIA
AHOLKULARITZA

Ongi pasa bestak!

KONTABILITATEA
ZERGAK
AUTONOMOAK
LABORALA-NOMINAK-KONTRATUAK
AHOLKULARITZA JURIDIKOA
ERRENTA AITORPENAK
ESKRITUREN TRAMITAZIOA
(HERENTZIAK, SALEROSKETAK...)
KONTRATU PRIBATUAK
GESTORIA LANAK

T 948 637 359 M 688 665 581    BITTIRIAKO PLAZA 8 31770 LESAKA (NA)

erran.

muebles
ORDOKI
altzariak

Ongi pasa sanferminak!



 Bittiria, 18 | LESAKA

www.mueblesordoki.com
info@mueblesordoki.com

 948 638 076



BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK

**GASOLIOA
ETXERA**
eramaten dugu

**PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT
ZERBITZU ANITZAK**

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
IAT aurreko zerbitzua dohainik
Gasolindegia 24h irekita



 609 446 693 - 679 204 872

bidaso@neumaticosbidaso.es
www.neumaticosbidaso.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko

 Alkaiaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125

 Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872

Ongi pasa bestak!

«Lehen gauez gehiago ibiltzen ginen eta orain egunez, batzuk...»

ZIHARKA PEÑA 20. URTEURRENA OSPATZEN ARI DA URTE OSOAN



UTZITAKOIA

Duela hogeit urte sortu zuten Ziharka peña. Ordura arte, «kuadrillako jende gehiena, gurasoen peñako blusekin edo peñarik gabe ibiltzen ginen eta gurea sortzeko aukeraz solasean hasi ginen. Lehenengo urtetan, kuadrillakoe bakarririk osatzen genuen. Gerora, jende berria sartzen joan da eta kopurua nahiko hazi da gaur egun», aipatu digu **Jon Alberro** peñako kideak. Denen gustuko izena lortzea ere ez zen lan erraza izan: «Jendeak proposamenak botatzen zituen eta bozketak egin genuen azkenean. Badakizu, horrelakoetan ideia on bat ateratzeko hamaika tontakeria erraten ziren eta bere denbora eman zigun izen egokia lortzeko». Ziharka izenarekin, «batetik, ezpata dantzarien dantzari keinu bat egin nahi genion eta ber-

tzetik, besta giroan aunitz ibiltzen ginelako eta, behin baino gehiagotan, nahiko lanekin **ziharka** joaten ginelako etxera... (kar-kar)».

Besta egiteko moduan aldaketak

Hasieran, kuadrillako 35 bat gaztek osatu zuten peña, «baina urteak aitzinera, bikoteak eta seme-alabak gehitzen joan dira eta orain 4-5 urte, Lesakako bertze gazte kuadrilla bat ere hasi zen gurekin ibiltzen. Beraz, guztira 75-80 bat izanzen gara». Urteen poderioz, nola ez, besta egiteko modua ere aldatu zaie Ziharkakoei: «Nahiz eta oraindik ere ilusioz hartzen ditugun, hasi ginenean 16-18 urte genituen eta normala den bezala, orain baino indar handiagoarekin hartzen genituen sanferminak. Orain, bertze zeregin

Lesaka-Bera AUTOESKOLA

Ongi pasa bestak!

Eztegara, 12 • BERA Iturrunzubiko plaza, 8 • LESAKA
948 630 652 948 637 870

Etorri Lesakako instalaziora, eta gozatu dauden aukerekin!

ONGI PASA SANFERMINAK!

LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

T. 948 637 400 • kiroldegia@lesaka.eus
www.lesakakoudalkiroldegia.eus

ONGI PASA BESTAK!

ARANTXENE

MENDI LANAK

3 NEURRITAKO SU EGURRA SALGAI

Tel. 646 802 787 | 650 461 778

Antoiu OSTATUA

Ongi pasa Sanferminak!

Goizeko 06:00etatik aitzinera irekia.

HANBURGESAK

PLATER KONBINATUAK

BOKATAK

Antoiu, 17-LESAKA | 948 63 73 93 - 631 02 79 50

L'IDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

INGURUNE BERRIA ZURE IRRIARENTZAT

Ortodontzia eta odontopediatria, odontologia orokorra, endodontzia, implanteak, errehabilitazio protesikoa, hortzetako estetika, eta abar.

Al-Or: 08:00-13:00 | 15:00-20:00
Larunbatetan irekia: 08:00-13:00

Iturrunzubiko pl. 9-10 LESAKA | T. 722 662 478
lidera@hortzklina.es | @liderahortzklina

GOZATU SANFERMINAK!

batzuk daude (familia, lana...) eta zaila da 18 urtetako erritmo berdina izatea. Hala ere, egia da peñako kide guztientzat sanferminak hagitx garrantzitsuak direla eta egun hauetan elkartu eta giro onean egoteko gogoz egoten gara», aipatu digu Alberrok. «Ezin dira 18 urterekin genituen erantzukizunak eta gaur egun ditugunak alderatu –dio– eta horrek besta egiteko modua baldintzatzen du. Lehen gauex gehiago ibiltzen ginen eta orain, egunez gehiago egotea tokatzen zaiagu, batzuri bai behinik behin (kar-kar)».

Urte osoan urteurrena ospatzen

Hogeigarren urteurrenaren harira, urte osoan egiten ari dira ekintzak eta sanferminetarako deus zehatzik antolatu ez badute ere, «garrantzitsuena, jendea gauzak antolatzeke eta parte hartzeke gogoz dagoela da eta beraz, dudarik gabe, ekitaldi gehiago izanen ditugu aurten». Peña handia izaki, bakoitzak besta egiteke bere modua du, baina peñen egunaz gain, bezperan ere beraientzat ekitaldi berezia izaten dute. «Peñen eguna handiena da guretzat eta bazkariaz gain, egun osoan ibiltzen gara buel-

taka. Gosaria egiten dugu soziedadean eta akordeoilari bat etortzen da urtero gurekin gosaritx hasi eta arratsera arte. Baina uztaileen 6a ere hagitx polita eta berezia izaten da guretzat. Goiz goizetik, gure kuadrillakoa zen Lander Arriolaren omenez paratutako zuhaitzera joaten gara eta lore sorta bat eta, painulu gorria paratu ondotik, gosaltzera jausten gara herrira. Txupinazoa ikusi eta bazkaria prestatzen dugu elkartean. Ondotik, kuadrillako «txarangak» lagunduta, poteo musikatua egiten dugu danborrada hasi arte».

Irrintzi eta Kalaxka peña historikoen arteko «ribalidadea» ezaguna da, baina XXI. mende hasieran, garaitsu berean, sortutako peñen artean ere izaten dituzte beraien *lehia* umoretsuak. «Badago bai! –aipatu digu Alberrok–, gure urte berean (seguruenik gure ideia aditu ondotik...kar-kar) bertze peña batzuk ere sortu zituzten. Erretiradi peñarekin beti izan dugu haiekin halako *pika* sano bat eta kasualitatea edo ez, beraiek ere aurten 20 urte egiten dituzte, baita Altxadi peñak ere. Beraz, zorionak beraiei ere eta ongi pasa sanferminak!».

TRANSPORTES IRIGOYEN

ONGI PASTA BESTAK

629 592 215 · Biurrana auzoa, 1 · LESAKA

ongi pasa bestak!



IZARRA
OKINDEGIA

PLAZA ZAHARRA 12~13
31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855



Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

**Lesakako Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue!**



ITURENGO BESTAK 2025

ITTUNGO
HERRIKO OSTATUAK

**BESTA ON BATZUK
OPA DIZKIZUE**

☎ 948 451 346



Ileapaindegia
EIDER

Asteartea eta ortzeguna: 09:00 - 14:00
Asteazkena eta ortziralea: 15:00 - 20:00
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 9 | ITUREN | T. 630 633 445

ONGI PASA BESTAK!



HITZORDUA ESKATU
618 124 374
Kontsejo, 9 | ITUREN

egurpellet



PELLET ZAKUAK ETXERAINO

egurpellet.com
info@egurpellet.com
T 623 246 300

ONGI PASA BESTAK!

Uztailak 17, Ortzeguna

16:30ean herri kirolak eta haur jokoak.
17:30ean emakumezkoen frontenis txapelketako finala. **18:30ean** gazteen arteko esku pilota partidua. **20:00etan** txupinazoa. **Ondotik**, Mendaur trikitixa eta pandero eskolakoekin kalejira. **21:00etan** zopak herriko ostatuan eta afaria Altxunean. **00:00etatik 04:00etara** J&J Djak.



Uztailak 18, Ortziralea

09:00etan dianak herriko txistulariekin. **11:00etatik 14:00etara** eta **16:00etatik 18:00etara** puzgarriak. **14:00etan** haurren bazkaria plazan. **17:00etan** mus txapelketa. **18:00etan**

txokolatea. **19:00etatik 21:00etara** Xaiborrekin disko festa. **21:00etan** paella jatea. **00:00etatik 03:30era** Balantza erromeria taldea.

Uztailak 19, Larunbata

09:00etan diana herriko txistulariekin. **10:00etan** plater tiroketa. **12:30ean** pilota partidua Iturengo plazan: Be-reau eta Urrozola, Xala eta Santestabanen aurka. **14:30ean** herri bazkaria Santamariako cateringarekin. Bazkalondoan bingoa. **18:00etatik 21:00etara** Joselontxos txarangarekin herriari buelta. **20:30etik 22:00etara** Itzal erromeria taldea. **22:00etan** xingar eta xolomo jatea guraso elkartearen eskutik. **00:30etik 03:00etara** Itzal erromeria taldea. **03:00etatik** aurrera, gazteen eskutik, Endara Dja txosnan.

Uztailak 20, Igandea

09:00etan diana herriko txistularien eskutik. **11:00etan** meza. **11:30ean** herriko gaztetxoaren pilota partidua. **12:30ean** Izeta eta Ostolaza harri eskolen arteko desafioa. **Ondotik**, toka plazan. **18:00etan** herriko dantza taldearen erakustaldia. **19:30ean** mariatxiak Chuchin Ibañezen eskutik. **Ondotik**, Xolomo eta xingar jatea. Gaixoa ni.



ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA



A+++ PVC LEIHOAK



Merkatuko leihorik hoberenak egiten ditugu!

6 kamara eta 82 mm-ko perfilak

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Egiturak	Eskailerak	Ateak	Lurrak
			
Armaruak	Sukaldeak	Egurrezko leihoak	Leiho mistoak
			

Leitza errep. · 31745 ITUREN
M. 676 393 996 · T. 948 388 455 · F. 948 456 164
carpinteriaecheverria@yahoo.es

«Saltsa polita sortzen da larunbateko bazkal ondoko itzulian»

HAIZEA AIOROA APEZTEGIA ITURENGO GAZTEA



UTZITAKOA

Iturengo 23 urteko neska gaztea da Haizea Aioroa Apeztegia: «alaia, saltsera eta beti laguntzeko prest dagoena». Ongi daki ardi galdua atzeman daitekeela, baina aldi galdua ez eta horregatik «bizitzako une guztiak ahalik eta gehien disfrutatzeko gogo» duela azpimarratu du. Hala, amets egiten hasita eskaera argia egiten du: «bizitza osasuntsu bat izan ta bizitzak ematen dizkidan momentu guztiak ahalik eta hobekin probesteko aukera izatea».

Udazkenean amets egiteko eskatuta, bertzelakoak izanzen ziren seguruenik aipatuko zituen kontuak. Urte sasoi horretan zakurrak eta eskopeta ez ditu urruti izaten, «ehiza da nire afizio nagusienetako bat. Basurdetan eta usotan aritzen naiz». Etxetik heldu zaio afizioa, «ttiki ttikitatik ikusi dut, lagunez inguratuta egoten naiz eta sortzen den giroa berezia da». Ehizako denboraldia bukatzean, berriz, zakurra hartu eta mendira joatea eta lagunekin elkartu eta planak edo besta egitea» ditu gustuko.

Herrian edo herritik kanpo, «Iturenen ez dago aisiadirako aukera aunitzik eta herri ttikia denez, ahal dugun bezala moldatzen gara eta aunitzetan

ondoko herrietara mugitu behar izan dugu». Datozen asteetan, ordea, ez du urrutira joan beharko ongi pasatzeko. Iturengo bestak ospatuko dituzte uztailaren 17tik 20ra eta inauteriak gogo gehiagorekin hartzen dituela aitortu duen arren, «herriko bestak beti dira bereziak».

Lau egunez bestan

Plaza giroa zein tabernakoa: «bakoi-tza bere momentuan, biak ditut gustuko». Besta soilik ez, tartean, lana ere egiten dute, «gazteek tzosna jartzen dugu eta auzolanean, bata bertzearen arrimuan errazago egiten dugu». Adiskide onekin orduak labur izaten baitira.

Lau eguneko egitaraua prest dute Iturenen eta lauetan topatu du beretzat tokia Aioroak: «Iturengo neska gazteok frontenis txapelketa egiten dugu eta finala ortzegunean izaten da. Gero, txupinazoa eta eguna akitzeko zopak izaten ditugu». Ortziraleko protagonistak haurrak izaten dira, baina hala ere, ez dira etxean geratzen Aioroa eta lagunak: «gazteok gure artean bazkaria egiten dugu eta arratsean paella afaltzera atera eta bestarekin segitzen dugu».

Larunbatean izaten dute beretzat bestetako ekitaldirik bereziena dena: «herri bazkaria egiten dugu eta bazkalondoan herriari itzulia ematen diogu txarangarekin. *Zurrapapotea* edanez, erreka erreka joaten gara freskatzen. Saltsa polita sortzen da». Bestetan, baina batez ere larunbatean izaten den herri giroa nabarmendu du: «Ituren herri ttikia denez, adin guztietako jendea elkarrekin ibiltzen gara bestan eta hori gauza polita da». Nahikoa dantza, kontu eta kanturen ondotik, ilunabarrean indarrak hartzeko pintxoak afaldu eta goizaldeko ordu txikiak arte bestarekin segitzen dute. Biharamuna, igandea, izaten da bestetako azken eguna eta aitortu du «egun lasaia» izaten dela, «hiru egunetako ajeari buelta eman eta beste bukaera emateko».

Ainhua Altzuguren Mitxelena

ongi pasa bestak!

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

**AURTIZKO
OSTATUA**

ONGI PASA
BESTAK!

Errazioak, eguneko menuak, bokatak,
pizak, hanburgesak, plater konbinatuak...

Baja, 18 Aurtiz | 848 68 05 57 | aurtizkoostatua@gmail.com

BEROTZA
ITURGIN

ITURGINTZA, BEROKUNTZA
ETA ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK

948 450 063-609 614 214
info@berotza.es - www.berotza.es
31745 ITUREN (Na)

Ongi pasa bestak!



ITURENGO UDALAK

besta zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

ERASO
SEXISTARIK
EZ!

Uztailaren 17tik 20ra

